Nolanahi ere, zerbitzu mugikorrean baja emanda ez da automatikoki emango Bezeroak aukeratutako Gailuaren alokairuaren baja; kasu horretan, aplikatu beharreko Baldintza Orokorretan eta/edo Partikularretan xedatutakoari jarraituko zaio.

Gainera, Bezeroak zerbitzu bakoitzean hartutako iraupen-konpromisoei eutsiko zaie, haiei dagozkien Baldintzetan ezarritakoaren arabera.

6.2.2. miMovistar-eko zerbitzu finkoetan baja ematea

Bezeroak hautatzen duen beste edozein aukera baztertu gabe, miMovistar-en osagai finkoetan (linea finkoa, internet finkoa eta TB) baja emanez gero eta mugikorren zerbitzuei alta emada mantenduta, Bezeroak hauek izatera pasatuko da:

Barne hartutako miMovistar modalitatea (Movistar llimitado eta Movistar Max-en barne hartutako linea): Edozein operadore eta edozein ordutan finkoetara eta mugikorretara deiak hartzen dituen Tarifa 0 kontratu mugikorraz gozatzera pasatuko da: 0 zent./min., dei-earpena 40 zent. (BEZA barne) eta nabigazioa abiadura handiengan erabilitakoagatik ordaintzeko modalitatean. Movistar-ek Tarifa 0-ko linea horri baja emateko eskubidea du, tarifa aldatu eta 6 hilabete igaro ondoren telefono-kontsumorri egin ez bada, Bezeroari baja eman baino 15 egun lehenago gutxienez jakinarazi ondoren.

miMovistar nagusia modalitatea Movistar Max-en: Edozein ordutan eta edozein operadoreko estatu finko eta mugikorretarako dei mugagabeak, dei-earpena, SMSak eta internet mugikorreko 30 GB hilero barne hartzen dituen Contrato XL kontratua izatera pasatuko dira, 24,95 €/hileko prezioan (BEZA barne) une honetan.

miMovistar nagusia modalitateak Movistar llimitado eta Movistar llimitado x2 produktuetan, eta barne hartzen duen miMovistar Movistar llimitado x2 produktuan: Edozein ordutan finko eta mugikorretarako dei mugagabeak, dei-earpena, SMSak eta internet mugikorra Datu mugagabeekin lurralde nazionalen barne hartzen dituen Contrato Infinito kontratua izatera pasatuko dira, 39,95 €/hileko prezioan (BEZA barne) une honetan. Datu mugagabeak ez dira bateragarriak Datu partekatuekin. Datuak partekatzen badira, linea mugikor honek ematen duen frankizia 25 GB/hil-era mugatuta dago, abiadura handienera. Datuak partekatzen ez badira, EBn, Islandian, Liechtensteinen, Norvegian eta Erresuma Batuan erabilitako ibiltaritza-datuen trafikoa 50 GB/hileko muga izango du; 50 GB-ak gainditzen direnean, MB bakoitzeko prezioa 0,0029€/MB-ekoa izango da (BEZA barne).

Datu mugagabeak ez dituzten linea mugikor guztietan, hau aplikatuko da: Behin datuen frankizia gaindituta, Bezeroak abiadura handiengan nabigatzen jarraituko du erabilitakoagatik ordaintzeko modalitatean, 3 zent./MB-eko prezioan, 4 GB gehigarri arte. Behin frankizia eta erabilitakoagatik ordaintzeko modalitateko 4 GB gehigarriak gaindituta, abiadura murriztuz nabigatzen jarraitu ahal izango da. 10 €-ko erabilitakoagatik ordaintzeko modalitateko gehienezko zenbatekoa ezartzen da nabigazioan, aldatu ahal izango dena doan deituta 223528 telefonora, Mi Movistar aplikazioan edo 1004 zenbakira deituta. Bezeroak zenbateko hori 0 €-tan ezartzeko aukera du; kasu horretan, ez zaio erabilitakoagatik ordaintzeko modalitateko ordainketa aplikatuko abiadura handiko 4 GB gehigarriak berriro eskatzen ez dituen arte. Nabigazioan erabilitakoagatik ordaintzeko modalitatearen zenbatekoa behin aldatu ahal izango da fakturazio-epe bakoitzeko.

Nolanahi ere, zerbitzu mugikorrean baja emanda ez da automatikoki emango Bezeroak aukeratutako Gailuaren alokairuaren baja; kasu horretan, aplikatu beharreko Baldintza Orokorretan eta/edo Partikularretan xedatutakoari jarraituko zaio.

7. miMovistar etetea.

7.1. Zerbitzua aldi baterako etetea, ez ordaintzeagatik.

miMovistar produktuen fakturazioari dagokion kargu-agiria kobratzeko aurkeztu zenetik hilabete baino gehiagoz Bezeroak zor dituen eskuragarri dauden lineen zenbatekoak, osorik edo horien zati bat, berandu ordaintzen baditu, Movistar eta Telefónica Móviles España, S.A.U. enpresek eskubidea izango dute, Bezeroari alde aurretik jakinarazita, telefono-zerbitzu finkoa, banda zabaleko zerbitzua, TB zerbitzua, hala badagokio, eta Movistar-en komunikazio mugikorren zerbitzua eteteko.

Aurrekoari kalterik egin gabe, aipatutako ordainketa atzeratzeak ez du ekarriko, inola ere, bezeroak kontratatutako Zerbitzu Gehigarri aldi baterako etetea, ez eta aukeratutako Gailua alokairu-erregimenean ez izatea ere.

Movistar-ek goian aipatutako zerbitzuen etendaldia jakinaraziko dio Bezeroari, etendaldia gertatu baino 15 egun lehenago, gutxienez. Jakinarazpen horretan bertan, Movistar-ek adieraziko du, ordainketa egiten ez bada, zerbitzuaren-etendura data, ezingo dena egun baliogabean gauzatu.

Komunikazio elektronikotzat hartu gabeko zerbitzuak ez ordaintzeak ez du gainerakoak etetea eragingo, betiere komunikazio elektronikoen zerbitzuei dagokien fakturaren zatia ordaintzen baldin bada. Kasu horretan, bezeroa fakturarekin ados ez baldin badago, eskubidea izango du, alde aurretik eskatuta, faktura independenteak eskuratzeko.

Halaber, baldin eta bezeroak satelite bidezko TB hornikuntzarekin aparteko TB edukiak kontratatuta haiek ordaindu ez balitu, Movistar-ek satelite bidezko TB hornitzeko zerbitzu hori eten egingo luke.

Movistar-ek etendako zerbitzuak berrezarriko ditu zor den zenbatekoa ordaindu dela jakiten duen egunaren hurrengo lanegunean, eta Bezeroari 25 euro (30,25 € BEZA barne), kobratuko dio eten diren zerbitzuak birgaitzeagatik.

7.2. Zerbitzua behin betiko etetea, ez ordaintzeagatik.

Emandako zerbitzuen ordainketa hiru hilabete baino gehiagoz atzeratzen bada edo kontratuari dagozkion zerbitzuak aldi baterako bi aldiz eten badira ordainketa berandutzeagatik, miMovistar Konektibitate-zerbitzua behin betiko etengo da:

Azkenik, zerbitzua ez ordaintzeagatik behin betiko eteten bada, Bezeroak hautatu duen



Gailua alokatzeko kontratua bertan behera geldituko da, eta Gailuaren Baldintzetan xedatutakoari jarraituko zaio.

8. MiMovistar-ekin sinatutako kontratuen iraupena

miMovistar kontratatzeak ez du esan nahi irauteko konpromisorik dagoenik; hala ere, Bezeroak Movistar-ekin beste kontratu batzuei dagokienez hartutako beste edozein konpromisotarako xedatutakoa bete beharko da.

8.1. Gailuarekin lotutako konpromisoak

Bezeroak Gailu bat erostea erabakitzen badu, Gailua alokatzeko kontratuak 36 hilabeteko iraupena izango du. MiMovistar-en edo eskaintza horretan sartzen den zerbitzu mugikorren baja aurrez ematen bada, Gailuaren Baldintzetan xedatutakoari jarraituko zaio.

9. Datu pertsonalen babesa.

Movistar-ek jakinarazten du bere bezeroen datuak Movistar-en Pribatutasun-politikan ezarritakoaren arabera tratatuko direla. Klausula honetan jasotzen da horren oinarritzko informazioa. Horren eduki osoa esteka honetan, www.movistar.es/privacidad, www.movistar.es/privacidad, ale bat eskutuz 1004 zenbakian edo Movistar Dendetan.

Datu pertsonalak babesteko Europako araudiarekin bat etorritik, eta Politika horretan ezarritakoaren arabera, Grupo Telefónica-ko enpresa hauek Movistar Bezeroaren datu pertsonalen tratamenduaren erantzule dira, kontratatuta dituen produktu eta zerbitzuen arabera: Telefónica de España, S.A.U. eta Telefónica Móviles España, S.A.U. (aurreantzean eta batera deitua, klausula honetan ezarritako ondoretan, "Movistar"). Movistar-en, bezeroaren datuak Zerbitzua emateko tratatuko ditugu, bai eta, Movistar bezero gisa, Pribatutasun-politikan jasotako baldintzetan ahalbidetzen edo baimentzen dizkigun beste helburu batzuetarako ere. Politika horretan, gainera, bezeroak bere baimena behar duten beste tratamendu batzuei buruz erabaki ahal izateko behar duen informazio guztia jasotzen da.

Bezeroak ekitaldi honetan aurkezten duen kontratua gauzatzeko behar diren datu pertsonalak, zerbitzua ematean lortutakoekin batera, eta arreta- eta merkaturatze-kanalen bidez lortutakoak, Movistar-en titulartasuneko datu pertsonalen fitxategi informatizatuaren sartuko dira.

Pribatutasun-politikan jasotako tratamenduez gain, Zerbitzua erabiltzeko baldintza hauek onartzen, Bezeroari jakinarazten zaio miMovistar kontratatzeak dakartzan zerbitzuak emateko baldintzetan deskribatutako datuen tratamendu espezifikoak; zahazki, Bezeroarengandik edo erabiltzailearengandik lortutako datuak, zerbitzua edo produktua ematek eratorritako datuak, Movistar Produktu edo Zerbitzuen datuak, Movistar Plus+-en egindako kontsumoen datuak, trafikoari buruzko datuak, web eta app bisiten datuak, lokalizazio-datuak, gailutik emandako eta/edo lortutako datuak, eta, betiere, Movistar-ek emandako edo zenbatsitako datuak. Horien tratamendua beharrezkoa da kontratua gauzatzeko Pribatutasun-politikan adierazitako helburu guztietarako, Zerbitzua emateko.

Bezeroaren datu horiek tratatzeak aukera ematen digu eraginkorragoak izateko eta ematen dizkizugun zerbitzuetan ahalik eta segurtasun- eta konfiantza-mailarik handienak izaten jarraitzeko. Horretarako, Bezeroari edo erabiltzaileari jakinarazten zaio bezero edo erabiltzailearengandik lortutako datuak, bezero edo erabiltzailearengandik lortutako datuak, zerbitzua edo produktua ematek eratorritako datuak, Movistar Produktu edo Zerbitzuen datuak, Movistar Plus+-en kontsumo-datuak, trafiko-datuak, web-bisiten datuak, lokalizazio-datuak, gailutik emandako eta/edo lortutako datuak, eta Movistar-ek sortutako edo zenbatsitako helburuetarako datuak tratatu ahal izango ditugula, hau egitea ahalbidetuko dizutenak:

- Edozein moduren bitartez zure konexiotik egiten diren trafiko anomaloiei buruzko zibersegurtasun-informazioa jasotzea, sare, sistema edo ekipoen segurtasuna kaltetzen dutenak.
- Movistar Produktu edo Zerbitzuen eskaintza pertsonalizatuak jaso eta horietaz gozatzea edozein moduren bitartez, Telefónica Taldeko zein enpresak ematen duen alde batera utzita (Movistar produktu eta zerbitzuak eskaintzen dituzten Telefónica Taldeko enpresen zerrenda eguneratua gure webguneko Pribatutasuna atalean aurki dezakezu, zahazki, hemen: www.movistar.es/privacidad).
- Movistar produktu eta zerbitzuen eskaintzak pertsonalizatzea, Telefónica Taldeko zein enpresak ematen dituen alde batera utzita, behin-behineko moduan aipatutako datuak lagatuz hala behar izatekotan, barne-administrazioaren kudeaketa eta produktu eta zerbitzu horien merkataritza-kudeaketa erazteko.
- Dagokionean, bere Movistar+ zerbitzuan (telebista eta beste gailuak) Movistar produktu eta zerbitzuen edo bestelako hornitzaileen eskaintza pertsonalizatuak jasotzea.

Bestalde, pribatutasun-politikan aurreikusitako edozein helburutarako, Movistar-ek bere tratamendua konfiantza-hornitzailei eskatu ahal izango die. Hornitzaile horien eta bere funtzioak burutzean datuen nazioarteko transferentziak egiten dituzten hornitzaileen kategorien eguneratutako zerrenda hemen aurki dezakezu: www.movistar.es/privacidad/info-adicional.

Era berean, Movistar-ek bermatzen du behar diren neurriak hartuko dituela datu horien tratamendu konfidentziala ziurtatzeko, eta jakinarazten dio, araudi horren arabera, datuetara sartzeko, haiek zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, aurka egiteko eta eramateko eskubideak erabiltzeko. Horretarako, DATUAK erreferentzia duen idazki bat bidali behar du helbide honetara: TE_datos@telefonica.com helbide elektronikoa, idazki bat zuzentzen 46155, 28080 Madrid posta-kutxara, edo 224407 doako telefono-zenbakiaren bidez.

10. Zerbitzuen erabilera egokia.

Bezeroak konpromisoa hartzen du Zerbitzuen eta Movistar-ek ematen dizkion lotutako bestelako zerbitzu guztien zerbitzuak eta prestazioak zentzuz erabiltzeko. Bezeroa izango da Movistar-en aurreko erantzule, Zerbitzuari lehen adierazi ez den erabilerekin bat ematen bazaio eta baldin eta erabilera horrek Movistar-i edo hirugarrenei kalte egin badiezaieke, eta, bereziki, Movistar zerbitzuak komunikazio pertsonaletatik kanpoko (bezero partikularren kasuan) helbururen baterako erabiltzen badira edo zerbitzu horiek birsaldu edo merkaturatzen badira.

Baldintza hauetan aurrekusten den erabilera ezberdina berekin dakartenei kalterik egin gabe, honako hauek erabilera egokiaren kontratatzat hartuko dira, bestek beste:

1. Deiak birbideratzeko zerbitzuen zenbakietara egindako deiak, trafikoa kontzentratu edo eraldatzea dakartenak, bai eta Sare Adimenduneko 908 zenbakietara egindako deiak ere (zenbaki bereziak: 02)
2. Espresuki baztertzen da eta erabilera desegokitzat jotzen da telefonoguneetan, SIMBOXean, deien bideratzaile masiboetan edo trafikoa kontzentratu edo eraldatzeko bestelako elementuetan erabiltzea, edo dei masiboak egiteko, trafikoa birbideratzeko zerbitzuetarako eta/edo, oro har, trafiko-hustubideak eratzeko erabiltzen direnak.
3. Halaber, debekatuta gelditzen da SMSen erabilera bidalketa masiboak ahalbidetzen dituen aplikazio edo gailu bati konektatuta badago (adibidez, modem bat) edo, orokorrean, SMSen bidalketa kontratu honetan zehaztutakoaren helbuetatik kanpo gelditzen bada.
4. Bezeroak ezingo du Zerbitzuen birsalmatarik egin. Ezingo du Zerbitzua komertzialki ustiatu ezta etekin ekonomikorik jaso (ez zuzena ezta zeharkakoa ere) Zerbitzua edo horren gaitasun edo funtzionalitatearen bat birsaltzeagatik.
5. Ezin izango dira zuzendu zerbitzuak eskaintzen dituen aukerak (edozein prestazio eta erabilera motan) urrutiko entzute- edo zaintza-helburuetara, ezta partikularren arteko komunikazioa ezartzeko helburua ez duen edozein konexiora ere, horren iraupena edozein dela ere.

Sare-pilaketa bat ematekotan, P2P eta zuzeneko deskargen atariei dagokion trafikoari gainerako trafiko motei baino lehentasun txikiagoa eman ahal izango zaie.

6. Ibiltaritzari buruzko Europako Erregelamenduan zehaztutakoaren arabera, erabilera oker, gehiegizko erabilera edo iruzurrezko erabilerekin bat hautesmaten bada, errekaratu bat ezarri ahal izango da Ibiltaritzaren 1. gunean edo EB gunean. Halaber, hurrengo paragrafoan adierazitako kasuren bat ematen bada, aplikagarriak diren edozein jarduketara ezarri ahal izango dira, deskribatutako helburu-adierazleetan oinarritutako kontrol-mekanismoak aplikatuz.

Honako hau hartuko da "zentzuzko erabilera-politika" gainditzen duen erabileratzat:

- Bezeroak EB eta EEE Ibiltaritzan izandako presentzia eta kontsumo nagusia, presentzia eta trafiko nazionalarekin alderatuta.
- Gehienbat Ibiltaritza-erabilera lotutako SIM txartelen inaktibitate luzea.
- Bezero beraren SIM txartel anitzten erosteta eta erabilera sekuentziala Ibiltaritzan.
- Movistar-en SIM txartelen birsalmata antolatua

7. Espainiako edo Europako araudiaren kontra doan edozein erabilera. Adibidez, zerbitzua kontratatze momentuan indarrean zegoen edukiarik, jabetza intelektuala, segurtasunari edo pribatutasunari buruzko araudietan zehaztutakoa urratzea.

Aipatutako kasu horietan guztietan, bai eta modu desegokian edo zerbitzurako aurreikusitako komunikazio partikularren xedearekin bat ez datorren beste edozein kasutan ere, Movistar-ek eskubidea du Zerbitzua behin betiko eteteko (hala erabakiz gero, bezeroak Movistar-ek eskatutako bermeak aurkezten baditu zerbitzua berrezarri ahal izanik), bai eta Zerbitzua behar bezala ez erabiltzeagatik ondorioztutako edozein motakatu trafikoa kobratzeko ere (SMSak, deiak, datuak, etab.). Kasu horretan, une bakoitzean indarrean dagoen erabilitakoagatik ordaintzeko modalitateko prezio estandarren arabera tarifikatuko da, www.movistar.es webgunean argitaratuta eta eskuragarri dagoen Telefónica Móviles España, S.A.U.-ren prezio-katalogoaren arabera. Kasu horietan, ezin da aplikatu Zerbitzuari edo beste edozein sustapen lotutako prezio-murrizketarik, trafiko-frankiziarik edo egungo edo etorkizuneko edozein zerbitzuren prezioa gutxitzea dakarren aurrezki-modulurik.

Aurrekoa alde batera utzita, eta azaldutakoaren arabera zerbitzua behar ez bezala erabiltzen bada, etorkizuneko antzeko erabilera izango direla aurreikusita, Movistar-ek eskubidea du Bezeroari, aldezturik jakinarazi ondoren, adierazitako erabilera-ereduekin bat datorren tarifa-modalitateko egokiena esleitzeko, honek merkaturan eskuragarri dauden artean komenigarriagozat jotzen duen beste edozein modalitateko kalterik egin gabe.

11. Movistar-en egiaztatze- eta erregularizate-ahalmenak.

Movistar-ek eskubidea du edozein unetan Bezero bat HORECAS Bezero dela egiaztatzeko, eta, horretarako, uneoro dagokion ikuskatzailearekin lankidetzan aritu beharko du. HORECAS Bezeroa dela frogatzen bada, miMovistar baimenik gabe erabiltzen ari dela esan nahi du. Kasu horretan, Movistar-ek eskubidea du bezeroa lokal publikoetarako edo apustu-lokaletarako berariazko Fusión+ Bar zerbitzura erregularizatzeko.

12. miMovistar-en aldaketak.

Bezeroak konpromisoa hartzen du kontratuko datuetan aldaketarik izanez gero Movistar-i jakinarazteko, batez ere fakturazio-helbideari eta ordainketak helbideratzeko banku-kontuari dagokienez.

Aldeen arteko prestazioen oreka berrezartzeko, Movistar-ek kontratuan ezarritako baldintzak aldatu ahal izango ditu, eta, bereziki, kontratuaren prezioa, arrazoi hauetako batengatik, Movistar-ek zerbitzuen tarifak finkatu ondoren gertatutako egoeraren bat ematen bada:

- Movistar enpresaren sektoreko kostuak handitzea, estaldura, sarearen kalitatea edo



emandako zerbitzuaren ezaugarriak hobetzeko.

- Zerbitzua emateko baldintzei eragiten dieten arau-aldaketak (zergak, tasak edo ebazpen administratibo edo judizialak barne).
- Kontsumorako prezioen indizearen (KPI) edo, horrelakorik ezean, prezio industrialen indizearen (IPRI) gehikuntza.

Movistar-ek edozein aldaketaren berri emango dio bezeroari aldaketa gauzatu baino hilabete BAT(1) lehenago gutxienez, eta zer arrazoiengatik egiten duen adieraziko dio. Bezeroak kontratua penalizatorik gabe amaitzeko eskubidea izango du, bezeroak berak hartutako beste konpromiso batzuen kalterik gabe. Hilabeteko epean Movistar-ek jakinarazpenik jaso ez badu, Bezeroak aldaketak onartzen dituela ulertuko da.

13. Kontratua lagatzea.

Kontratu honen xede den zerbitzua pertsonala da, baina bezeroak hirugarren bati laga diezaioke, Movistar edo Telefónica Móviles España, S.A.U.-k baimena eman ondoren. Movistar edo Telefónica Móviles España, S.A.U.-k kontratu hau laga ahal izango du, indarrean dagoen araudiaren arabera bezeroari aurrez jakinarazita, eta bezeroak kontratua suntsiarazteko izan dezakeen eskubidea ukatu gabe. Aurrekoari kalterik egin gabe, miMovistar-en baja emanaz gero, linea mugikorrei dagokion kontratuaren eta fakturazioaren kudeaketa Telefónica Móviles España-k egingo du berriro.



Hurrengo zerrenda Konektibitate-zerbitzuarekin batera kontrata daitezkeen Zerbitzu Osagarrien sorta nagusia da, eta zabaldu egin daiteke, eskaintza komertziala etengabe aldatzen ari baita. Horri dagokionez, Eranskin honetan adierazitako maila bakoitzerako une bakoitzean eskuragarri dauden Zerbitzu Gehigarriei buruzko informazio osoa nahi izanez gero, jo movistar.es webgunera. Movistar-ek edozein unetan eta alde zuzenetik jakinarazi gabe alda dezake zerrenda, Bezeroa erabiltzen ari den Zerbitzuari ez baitio eragiten:

Aurreko taulan adierazitako Zerbitzuen prestazio zehatza kasuan kasuko Baldintza Orokorretan eta/edo Partikularretan adierazitakoaren arabera egingo da, movistar.es/contratos helbidean eskuragarri.

Prezioak BEZa barne. Penintsulan eta Balearretan %21eko BEZa aplikatzen da, Ceutan %10eko IPSIa, Melillan %8ko IPSIa eta Kanarrietan %7ko IGICa.

1) TELEBISTAKO ZERBITZU GEHIGARRIAK:

Movistar Plus+ Zerbitzuak	Prezioa
Movistar Plus+ Esencial	10 €/hilabetea
LaLiga	30 €/hilabetea
Champions y Europa League	20 €/hilabetea
Ficción con Netflix X2 ^{(1) (2)}	25 €/hilabetea
Ficción con Netflix X4 ^{(1) (2)}	30 €/hilabetea
Todo el Fútbol	43 €/hilabetea
Netflix X2 ⁽¹⁾	12 €/hilabetea
Netflix X4 ⁽¹⁾	17 €/hilabetea
Deportes ⁽³⁾	18 €/hilabetea
Ficción ⁽²⁾	15 €/hilabetea

Aipatutako zerbitzuak kontratatzeko, Movistar Plus+ moduluen Baldintza Partikularrak sinatu beharko ditu Bezeroak, www.movistar.es/contratos helbidean eskuragarri.

(1) Netflix Zerbitzurako Sarbidea duten Eskaintzak: Telebistako Zerbitzu Gehigarri hau kontratatuz gero, bezeroak Netflix-en sartzeko Baldintza Partikularretan harpidetu behar du MiMovistar zerbitzuaren barruan, www.movistar.es/contratos helbidean eskuragarri.

(2) Disney+ Zerbitzurako Sarbidea duten Eskaintzak: Telebistako Zerbitzu Gehigarri hau kontratatzeak berekin dakar Bezeroak Movistar-en Disney+-era sartzeko Baldintza Partikularretan harpidetzea, www.movistar.es/contratos helbidean eskuragarri.

(3) Dazn Zerbitzurako Sarbidea duten Eskaintzak: Telebistako Zerbitzu Gehigarri hau kontratatzeak berekin dakar Bezeroak Movistar-en Dazn-era Sartzeko Baldintza Partikularretan harpidetzea, www.movistar.es/contratos helbidean eskuragarri.

2) KONEKTAGARRITASUN-ZERBITZU GEHIGARRIAK:

Konektibitate-zerbitzuak	Prezioak Movistar Max-ekin	Prezioak Movistar ilimitado eta Movistar Ilimitado x2
Internet Segunda Residencia	30 €/hilabetea	15 €/hilabetea
Internet Segunda Residencia Plus	36,99 €/hilabetea	29,99 €/hilabetea

Konektibitate-zerbitzuak	Prezioa
Línea móvil adicional Infinita	19,9 €/hilabetea
Línea móvil adicional XL	14,9 €/hilabetea
Línea móvil adicional L	10,9 €/hilabetea
Pack Profesional	10 €/hilabetea

3. ERANSKINA – miMOVISTAR-EN BARNE HARTUTAKO EROSTEKO AUKERA DUEN GAILUAREN ALOKAIUAREN BALDINTZA BEREZIAK

Baldintza Partikular hauek miMovistar-ek barne hartzen duen eta erosteko aukera duen gailuaren alokairuari aplikatuko zaizkio, eta, beraz, ezinbestekoa da Bezeroak alde zuzenetik miMovistar Konektibitatearen Oinarriko Zerbitzua kontratatuta izatea, Gailu batez baliatzeko aukera ematen duen eskaintza batekin.

Baldintza Partikular hauek Movistar-en Eskuragarri dauden eta Erosteko aukera duten Gailuen Alokairuaren Baldintza Orokorren aplikazio-eremuaren mende daude (hemendik aurrera, Baldintza Orokorra). Baldintza horiek www.movistar.es/contratos helbidean daude argitaratuta, eta miMovistar-en dagoen gailura hedatuko dira Baldintza Orokor horietan jasotako aurreikuspen guztiak, bi aldeentzako eskubideak eta betebeharrak barne. Alde horretatik, Baldintza Orokor horiek Baldintza Berezi hauek osatzen dituzte, bertan aurreikusten ez den guztian.

Gailuaren alokairuaren prezioa bat etorriko da Bezeroak kontratatuta dituen Konektibitatearen Oinarriko Zerbitzu eta Zerbitzu Gehigarriekin, Baldintza berezi hauetako "Gailua" atalean adierazitakoaren arabera:

- Prezioa hileroko sortuko da, eta Telefónica de España, S.A.U.-k fakturatuko du miMovistar Zerbitzuaren fakturan.
- Bezeroa Konektibitatearen Oinarriko Zerbitzuetik aldatzen bada eta/edo gailuaren prezioa Oinarriko Zerbitzuaren barruan egotea eragin dezaketen Zerbitzu Gehigarrien baja ematen badu, hautatutako Gailuaren alokairuaren prezioa aldatu egin daiteke aurrez hautatutako Gailuaren mailaren eta Oinarriko Zerbitzu berriaren arabera, Baldintza Partikular hauetan jasotako prezioen taularen arabera.

Une bakoitzean maila jakin bati dagozkion Gailu Gehigarriaren Gailu eta sorta guztiak web orri hauetan kontsultatu ahal izango dira, kontratatutako gamaren arabera, edo horiek ordezkatzan dituzten Movistar-en web orrietan, aurrez jakinaraziko zaizkionak Bezeroari:

- Inicia gama: www.movistar.es/dispositivobv
- Selección gama: www.movistar.es/dispositivomv
- Total gama: www.movistar.es/dispositivoav

Gailuaren alokairu-zerbitzua Baldintza Berezi hauek sinatzen diren unean jarriko da indarrean, eta 36 hilabetez egongo da indarrean, data horretatik zenbatzen hasita. Bezeroak miMovistar Zerbitzuan alde zuzenetik baja ematea erabakitzen badu, hautatutako Gailuaren Alokairu-zerbitzuekin jarraituko du. Kasu horietan, Zerbitzuaren prezioa hilabetea sorraziko da, 1. Eranskinean adierazitako aukeratutako Gailuaren mailari lotutako alokairuaren miMovistar Zerbitzurik gabeko Kuotaren prezioaren arabera.

Bezeroak hala adierazten badu bere lotutako linea mugikorra mantendu ahal izango du; kasu horretan, Telefónica Móviles España, S.A.U.-k linea mugikorrak erabiltzeko ahots- eta datu-zerbitzua ematea Bezeroari ez da kontratu honen xede izango; miMovistar-en Baldintza Partikularretan ezarritakoaren arabera kontratatuko da, eta kontratu horiek zerbitzu horietarako une bakoitzean ezarrita dituen baldintzen arabera arautuko dira.

Bezeroak Gailuaren Alokairu-zerbitzuan borondatezko baja ematea erabakitzen badu, Bezeroak aukeratutako Gailua itzuli beharko du. Kasu horretan, Baldintza berezi hauetan aurreikusitako Terminal Eguneratuaren Kostu (CTA) haztatuen ondoriozko zenbatekoa aplikatuko zaio.

Bezeroak ez badu Gailua itzultzen edo ez badu itzultzen Erosteko aukera duten Movistar Gailuen Alokairu-zerbitzuaren Baldintza Orokorren 6.5 eta 6.6 ataletan ezarritako baldintzen arabera, Terminal Eguneratuaren Kostuaren (CTA) ondoriozko zenbatekoa aplikatuko zaio.

CTA Gailu Gehigarriaren hasierako kostua da, alokairuan bete ez diren gainerako egunekin biderkatuta, eta alokairuaren iraupenaren denbora osoarekin zatituta, egunetan kalkulatuta: $CTA = (\text{Gailuaren KOSTUA} / 1095) \times \text{Alokairuaren gainerako egunak}$.

Bezeroak edozein unetan erabil dezake Gailua erosteko aukera, Alokairuaren Baldintza Orokorretan ezarritako moduan eta baldintzetan.

Kontratu hau iraungiko da, zuzenbidean onartutako arrazoi orokorrez gain, miMovistar Zerbitzuaren kuotak ez ordaintzeagatik.

Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorren testu bateginean (azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretua) xedatutakoa kontuan hartuta, bezeroak ez du atzera egiteko eskubiderik izango aurrez aurreko establezimenduetan kontratatuz gero.



Bezeroak Gailu hauetako bat aukeratu ahal izango du:

- Smartphoneak
- Tabletak
- Telebistak
- Ordenagailuak
- Erloju adimendunak (Smartwatch-ak)
- Bideo-kontsolak

Zerbitzu honetako Gailu-motak handitu egin daitezke, eskaintza komertziala etengabe aldatzen ari baita. Horri dagokionez, Eranskin honetan adierazitako maila bakoitzerako une bakoitzean eskuragarri dauden Gailuei buruzko informazio osoa nahi izanez gero, jo movistar.es webgunera.

Hautatutako Gailuarengatik Bezeroak ordaindu beharreko zenbatekoa honela kalkulatu da, aukeratutako Oinarrizko Zerbitzuaren gamaren eta kontratatutako Zerbitzu Osagarrien arabera:

	miMovistar produkturik gabeko kuota	Gama Total	Gama Selección	Gama Inicia
MAILA 1	3 €/hilabetea	0 €/hilabetea	0 €/hilabetea	0 €/hilabetea
MAILA 2	5 €/hilabetea	0 €/hilabetea	0 €/hilabetea	2 €/hilabetea
MAILA 3	8 €/hilabetea	0 €/hilabetea	5 €/hilabetea	5 €/hilabetea
MAILA 4	8 €/hilabetea	5 €/hilabetea	5 €/hilabetea	5 €/hilabetea
MAILA 4A	11 €/hilabetea	8 €/hilabetea	8 €/hilabetea	8 €/hilabetea
MAILA 4B	13 €/hilabetea	10 €/hilabetea	10 €/hilabetea	10 €/hilabetea
MAILA 5B	15 €/hilabetea	12 €/hilabetea	12 €/hilabetea	12 €/hilabetea
MAILA 5A	15 €/hilabetea	12 €/hilabetea	12 €/hilabetea	12 €/hilabetea
MAILA 5C	19 €/hilabetea	16 €/hilabetea	16 €/hilabetea	16 €/hilabetea
MAILA 5D	20 €/hilabetea	17 €/hilabetea	17 €/hilabetea	17 €/hilabetea
MAILA 6D	23€/hilabetea	10€/hilabetea	10€/hilabetea	20€/hilabetea
MAILA 6A	23 €/hilabetea	20 €/hilabetea	20 €/hilabetea	20 €/hilabetea
MAILA 6B	25 €/hilabetea	22 €/hilabetea	22 €/hilabetea	22 €/hilabetea
MAILA 6C	26 €/hilabetea	23 €/hilabetea	23 €/hilabetea	23 €/hilabetea
MAILA 7A	30€/hilabetea	20€/hilabetea	20€/hilabetea	27€/hilabetea
MAILA 7B	30€/hilabetea	27€/hilabetea	27€/hilabetea	27€/hilabetea
MAILA 7	33 €/hilabetea	30 €/hilabetea	30 €/hilabetea	30 €/hilabetea
MAILA 8	36 €/hilabetea	33 €/hilabetea	33 €/hilabetea	33 €/hilabetea

• Gama Total: miMovistar Zerbitzua kontratatzen duten bezeroei aplikatzen zaio (Movistar Max izan ezik gune arautuan*), baldin eta TV Ficción Netflix-ekin eta Todo el Fútbol paketeekin elkarrekin egiten badute.

• Gama Selección: miMovistar Zerbitzua kontratatzen duten bezeroei aplikatzen zaio (Movistar Max izan ezik gune arautuan*), baldin eta TV LaLiga, Champions eta Europa League, Ficción Netflix-ekin edo Todo el Fútbol paketeekin elkarrekin egiten badute.

• Gama Inicia: Conecta Max Zerbitzua, miMovistar con Movistar Plus+ Inicia Zerbitzua edo Movistar Plus+ Esencial kontratatzen duten bezeroei aplikatzen zaie (gune arautuko Conecta Max eta Movistar Max izan ezik*).

Bezeroak Gailuaren Alokairu-kontratua indarrean dagoen bitartean kontratatuak dituen zerbitzuak aldatzen baditu, Bezeroak Gailuagatik ordaindu behar duen zenbatekoa igo edo jaitsi egin daiteke, aurreko taulan adierazitakoaren arabera.

Penintsulan eta Balearretan %21eko BEZa aplikatzen da, Ceutan %10eko IPSIa, Melillan %8ko IPSIa eta Kanarrietan %7ko IGICa.

(*) Gune arautua: CNMCK, erregulazio-mailan, etxerainoko Zuntz optikoko sareen operadoreen artean benetako lehia dagoela identifikatu duen Espainiako lurraldeko udalerriren baten barruan ez dauden etxebizitzak, horrek Gune Lehiakor gisa adierazten dituenean, hemen eskuragarri: www.movistar.es/zc